

Udal-etxeak eratutako euskal festetan,  
an degu beti «EREINTZA» elkarteak.  
Ara emen atzeneko Madalenetan,  
elkarte onen bidez,  
kalez-kale ikusi genituan  
Zubieta'ko zanpazarraren tunturroak.

## ZATOKIDA GOI ARNAS

Mikel UGALDE

Horrela dio «Orixe» haundiak «Euskaldunak» poemaren hasieran. Berak Euskalerrriaren kanta eta bizitza poema batean bildu nahirik ekin zion lanari sutsu eta kementsu. Guk ez dugu horrelako asmorik baiña idazburu berdina ipini diogu, arnas, gogo, hats eta indarrrik beharko bait dugu gure herriak, gutxienez, honetan iraun dezan.

Sarritan gure herriaz mintzatzerakoan, Euskalerrriaz ari geranean, historiaz eta bere berezitasunaz gustora jardun ohi dugu. Amaika eztabaida sortu ohi da kuadrilla eta tabernetan gai honi ekiten diotenean.

Gure iraganaz, gure historiaz, gure asaben berri emanaz OARSO ale honetan trebe bezain egoki mintzatzen zaigu zenbait idazle. Neronek ere historiaz, industrietzearen gertaeraz, hitzegiteko tentaldirik izan dutela aitortu beha dut. Baina gauza ez naizelako alde batetik eta egungo egoerak gehiago kezkatzen nauenez gero, egungo Errenterriari atxiki nazaio. Gure sorterriaz, gaurko egoeraz jardungo dugu. Errenteria, bestalde, ez dugu beste herriak baino hobea eta aurrerakoiagoa denik esango. Euskalerrriko industriadun beste zenbait herriren antzekoa da. Baina, era berean, berezia.

Jendez eta neurritz ederki asko hazi eta haunditu zaigun herria da Errenteria. Urte gutxitan berebiziko aldaketak ezagutu ditu. Urtetan kanpoan bizi zeraten errenteriarrok harri eta zur geldituko zinateke Oiartzun ibaiaren ertzean bildurik ezagutu zenuten herria gaurregun ikusiko bazenute. Xenpelarren garaiko Errenteria eta gaurkoa desberdinak direla edonork antz eman dezaioke. Baina gerra ostean jaino ginanok ere gaur ez bezalako Alabarga, Markola, Galtzaraborda, Iztieta, Larzabal ezagutu genuen. Ikustekoa da Gaz-



tañok berak egin duen aldaketa. Etxeak banan banan pilatuz, bata bestearen aldamenean ipiniaz Erretereria itxuragabe hazi zaigu, eta nola hazi gainera. Hazikera dela eta egin diren itxuragabeko gauzak aipatzen hasiko bagina errebista osoa geure esku beharko genuke, noski.

Kanpotarrek, Euskalerriko gainontzeko herritarrek Erretereria herri bizi, kezkatu, indartsu eta dinamiko bezala ikusten dute. Eta ez da harritzekoa. Erretereriak ezagutu ditu bere baitan lanik asko egin izan duten era guztietako taldeak. Bai kultura, ekonomia, politiko eta beste era askotako talde lana egin izan da hemen. Gai hau garbiro eta zehatzkiago azalduz aipamenik ere egingo genuke. Baiña, labur beharrez, beste baterako utziko dugu. Euskaltasunean bertan ere, kanpotarrak ainbeste izanik, aurre-rakoia dugu Erretereria. Bai Ikastola, bai soziedadeek, bai jaialdiek euskaltasunaren eragina erakusten dute. Bertsolariak ere gustora etorri ohi dira Erretereriara, adi adi egon ditekeen hainbat entzule ez bait dute beste zenbait herritan aurkitzen.

Erretereria asko hazi eta haunditu den herria dela esan dugu. Hazteak, haunditzeak, zabaltzeak kezka eta buruastea berekin dakar. Kinka larririk ezagutu dute bapatean, istanpe batean hazi diren herriak. Irun, Eibar, Zumarraga, eta abar lekuko. Nolako izan da gure herriaren hazikera?

Aieka asko du galdera honek, era askotako erantzunak eskatzen dituen galdera da. Lehen esan dedan bezala ez noa gauzak hirigintza edo urbanismo mailan aztertzerara. Erremedioirik ez duen gauza asko egin da gaizki. Baina goazen aurrera.

Gabierrota, Alabarga, Galtzaraborda sortzerakoan problema eta gorabehera franko sortarazi izan dute. Ez gera bakarka bizitzeko jaiok, eta giroak eta ingurukoak asko dezake nork bere bizitzan. Nolako giro eta inguruko ezagutu dute hauzo hauek hazterakoan? Batzuk bertakoak, gehianak kanpotarrak izanik, nolatan hauzo giro egoki bat sortarazi? Horrelako eginbidea dena egiteko dagoen hauzoetan betetzeak lanik asko ematen du. Gabierrotan talde batek lanari ekin dio, Laguntasuna elkarteak bertako zenbait arazo konpontzen bereak eta bi egin ditu. Alabergan, berriz, urtetan dabilzkigu su eta gar gizagifoa alda erazi nahirik. Gure-Lekukoek zerbait gehiago egin ezaketzen; laguntzarik ez dute aurkitu. Gurasoen elkarteak, emakumezkoenak eta abar hauzoetan gogoz ari zaizkigu.

Ez dugu egindako lanaz epaitzen hasteko asmorik, lanean asmatu duten ala ez hori geroak esango du. Baina lanik asko egin dutela edonork aitortzen duen zerbait da. Elkarte hauen lana ez baita hauzo mailan mugatzen. Hauzoan hirigintzaren arazoa neikoa ez delarik, eskolarena, zerbitzuena, eta abar ez dira nolana hikoak. Halere herri mailan zerbait egin behar denean, festetan, jaialdietan, Udaletxeko gorabeheratan eta abar elkarte hauek lanean ikusteak poztzen gaitu. Hauzoak sendotuz, luzaroa gabe zipristinak Zamalbidera iritsiko dira, herrigintza hobea-gotuko da, eta Erretereriak ez du bere hazikeran ainbestera-noko larriunerik eta kinkarik ezagutuko.

Herriko kaskoaren barruan badaude elkarteak ezin konta ahala. Tripa festa kutsukoak batzuk (baina hauek ere kulturagintzan beti laguntzeko gogoia erakusten dute), kirol girokoak besteak, kultura arloan ari denik ere bada, nola euskal giroan hala erdal giroan lan eginaz. Batzuk indartsu, besteak motel, baina denak ustez eta asmoz herriaren alde lan eginaz. Fomento Cultural, Orereta, Bukagaitz, Ibaika, Ibaialde, Ereintza, eta abar. Badago elkarte-rik eta herrian nabaria da berauen lan eta eragina. Bakoi-

tzak bere xede eta helbur ubereziak izango ditu, baina elkarteen artean alkartasunaren beharra gero eta gehiago sumatzen da. Hauzo mailan ari direnen eta gainontzeko elkarteen harremanak egunetik egunera hestuagoak dira. Aurrerantzean, beraz, Erretereriak bere elkarteetan beste herriek ez bezalako indarra izango du berekin.

Ea bada goi arnasak, gogoak, hatsak, herri kezkek, suspertzen gaituen. Ea bada denon artean, bakoitzaren askatasuna errespetatuz, lotura hestuago bat sortzen dugun. Ea bada historian oinarriturik, lehengo sustraitik, geroko Erretereria gertutzen dugun. Guk egindako lanak, erindako haziak, fruiturik eman dezake. Garaian garaikoa egiten ez denean herriak, eta edonork, lur jotzen du.

Erretereria haundituz eta zabalduz doa. Gaurdaino bere nortasunari eutsi diola ikusten dugu. Geroa, berria, gure eskuten dago.

Zatozkigu goi arnas egizu gurekin lan... Edo Xenpelarrek kantatu izan zuen bezala: «Ez gaitzezen umildu, elkarrengana bildu...» Ba zuen kezkarik bertsolariak, badugu lanik eta zerezinik gure herrian.



Gure erriak duan txokorik zarrenetakoa. Marratz-arin onetan. María José Errondosoro, erretereri artistak gazte onek gaur-gaurkoz bere balioa azalduaz, margolari ona izateko bere trebetasuna erakusten digu.